



IRAKASKUNTZA-GIDA 2023/24

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 1. maila

IRAKASGAIA

25074 - Garapenaren Psikologia I

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honen helburua garapen intelektualaren prosezua ezagutzea da, haurtzarotik zahartzarora, garapen hori ahalbidetzen dituzten aldagaiak aztertu eta bizi zikloan optimizatzeko. Ikasgai hau irakaskuntza-berrikuntza proiektu baten barruan kokatzen da: "Psikologiako ikasleen jarrera zientifiko, sortzaile eta autonomoaren sustapena, irakaskuntza-metodologi eklektikoen bidez". Kodea (IKD i³ 23-44) LORETU prototipoa denik, eta Berrikuntza, Gizarte Konpromisoa eta Kultur Ekintza Lehendakariordeak bultzatutakoa. Proiektu honen helburu nagusia gure irakaskuntza-errendimenduaren hobekuntza bilatzea da, eklektizismo metodologikoak pentsamendu kritikoa sustatzeko, abstrakzio-gaitasuna eta analisi inductiborako gaitasuna hobetzeko balio ote den aztertzen duten metodologia desberdinak kontuan hartuz eta alderatuz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Giza garapen psikologikoa azaltzeko oinarrizko kontzeptuak ezagutu.
2. Giza garapen psikologikoaren eredu teoriko desberdinen ekarpenak identifikatu eta erlazionatu.
3. Haurtzaroko eta nerabezaroko zenbait prozesu psikologikoen aldaketak, eta baita haien zergatiak, ezagutu eta arlo aplikatuan dituzten inplikazioak ikasi.
4. Garapen psikologikoaren prozesu desberdinen arteko harremanak ezagutu.
5. Ikasgaiaren landutako aspektuei buruzko txosten bat egiteko gai izan.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. GAIA: Giza garapenaren eredu eta teoretako oinarrizko kontzeptuak.
2. GAIA: Giza garapenaren ikerketa metodoak.
3. GAIA: Hasiera, garun-garapena eta garapen fisikoa haurtzaroan eta nerabezaroran.
4. GAIA: Garapen kognitiboa lehen haurtzaroan.
5. GAIA: Garapen kognitiboa eskola aurrean.
6. GAIA: Garapen kognitiboa eskola aroan.
7. GAIA: Garapen kognitiboa nerabezaroran.
8. GAIA: Hizkuntzaren jabetasuna eta garapena.
9. GAIA: Gizarte ezagutzaren garapena.
10. GAIA: Garapen fisiko-biologikoa eta kognitiboa helduaroan eta zahartzaroan.

METODOLOGIA

METODOLOGIA:

*Gela praktikak irakasgaiarekin lotutako ikus-entzunezko dokumentalak ikustean eta aste horretan irakatsitako gaiari lotutako ikerketa artikulua irakurtzean oinarritzen dira

*Tailerrak: hauetan irakurritako artikulua edo ikusitako bideoen azterketa eta hausnarketa egingo da, fitxa batzuetan oinarriturik eztabaida bat burutuz. Tailer batzuetan ere talde lanaren jarraipena egingo da. Praktika eta tailerretan lantzen den edukia azken azterketan ebaluatuko da.

*Mintegiek informazio teorikoaren bateratzea, talde lanaren sustatzea, eta idazketa eta aho komunikazioaren gaitasunen garapena dute helburu .

- Mintegiak 1 (2, 3, eta 5 gaitasunak): Taldeka txosten bat egitea artikulua zientifiko baten egitura jarraituz. Lan hau, eskola teorikoetan landutako Piageten lau estadioetako batean oinarritutako esperimenduak azaltzean oinarrituko da (sentsomotorea, eragiketa aurrekoa, eragiketa konkretuak edo eragiketa formalak).

- Mintegiak 2 (4 eta 5 gaitasunak): Burututako esperimenduen errebisioa eta aurkezpena gelakideen aurrean. Lan taldeak 6-8 kide ostaturik egongo dira. Lana irakasleak errebisatuko du tutoretza orduetan eta 3 tailer orduetan. Lana eskola egutegiko azken astean entregatu beharko da.

OHARRAK:

- Eskola orduetan, behar den isiltasuna edo parte hartzea eskatuko da. Parte-hartze aktiboa sustatuko da.

- Ez da derrigorrezkoa eskola guztietara etortzea, baina garrantzitsua da jakitea hartu behar diren erabakiak (edo/eta aldaketak) edozein eskola orduetan har daitezkeela: etorri edo ez etorri ikasgelara, ikaslearen ardurapean geratuko da guzti honetaz jabetzea eta betetzea.

- MOODLE plataforma erabiliko da ikaskuntzarako osagarri bezala. Bertan argitaratuko dira ikasgaiaren materialak eta edukiak.



TUTORETZA ORDUAK ARGITARATUKO DIRA.
GAUREn argitaratuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	17				9		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	3	25,5				13,5		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 75
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioa azken azterketako notaren batuketa (Maiatza/Ekaina) eta talde lanean oinarritzen da. Azken kalifikazioa: Azterketan teoria edukiak azken notaren %75a balio dute. Talde lanak eta lan horren ahozko aurkezpenak notaren %25a balio dute.

A) EBALUAZIO JARRAIA

• TEORIA: Azterketa mota: ikasgaiaren amaieran proba objektiboa (azterketaren %75a).

- Ikasketa materiala: Apunteak, Eskuliburua, fotokopiak, gomendatutako erreferentziak.

• GELA PRAKTIKAK ETA TAILERRAK: hauen edukiak saioetan landutako eta eztabaidatutako edukien inguruko edukiak azken azterketan ebaluatuko dira, eta notaren %20a balio du.

• MINTEGIAK: Azken notaren %25 balioko du Piageten teorian oinarritutako esperimentuari buruzko talde lanak.

A) EBALUAZIO FINALA:

• Azterketa mota: eskola teorikoetan eta tailer eta praktikan landutako edukien inguruko galderak. Notaren %100a balioko du.

*Ikasgai osoa azterketan ebaluatzeko aukeratzen duten ikasleek, gutxienez azterketa dataren baino hilabete bat lehenago horren berri eman beharko diote irakasleari.

*Ikaslea kalifikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da talde lana (edo honen ordez, parte honi buruzko azterketako galderak) eta azterketa (ikasle guztientzako zati komuna) gainditzea. Baldintza hauek betetzen badira, kalifikazioa haztatuko da (azterketa teoriko-praktikoa 70% + talde lana 25% + txostenak 5%)

*Talde lana aurreko ikasturte akademikoan egin duten ikasleek, eta horrela erakusten dutenek, ez dute hura errepikatu behar. Halaber, talde-lana egokitasunez egin baina azterketa teorikoa gainditu ez dutenei, lanaren nota gordeko zaie azterketa teorikoa gainditu arte.

*Azterketa gainditu baina talde-lanean huts egin duten ikasleei, azterketaren nota hurrengo deialdira arte gordeko zaie. Lana gainditzeko ez badute, berriz matrikulatu beharko dira ikasgaiaren eta ebaluazio prozesua berriro bete beharko dute.

*Deialdiari uko egiteari dagokionez arau gehigarriak

Irakasgai honetan, deialdiari uko egiteko azterketara ez aurkeztea nahikoa izango

EBALUAKETAN KONTUTAN HARTUKO DIRENIKASKUNTZA EMAITZAK

EREMU KOGNITIBOA

Ikaskuntza emaitzak

IE1 Oinarrizko giza garapen psikologikoaren teoriari buruzko kontzeptuak ezagutzea: psikologiaren eztabaidak, garapenaren gainean psikologikoaren ideien aldaketak, eta ikerketa metodologiaren bilakaera

IE 2 Garapenaren psikologiaren ikerketari ekiteko eredurik adierazgarrienak ezagutzea

IE 3 Haurtzaroan eta nerabezaroan zeharreko garapen psikologikoan ekarritako oinarrizko prozesuak ulertzea: heldzea eta garapena, garapen neurologikoa, eta baita arretaren, oroimenaren eta funtzio betearazlearen garapena, ingurunearen eta ezagutzaren arteko interakzioa

IE 4 Aurrez ezagututako kontzeptuen interrelazioa ulertzea: arreta eta orimenaren garapena, gaiuzen eta pertsonen ezagupena, kategorizazioa, mentalizazioa, plangintzarako eta arazo konponbideak bilatzeko garapena

IE 5 Hizkuntzaren eskuratzean mekanismoen funtzioa eta hizkuntzaren garapenerako prozesuak ezagutu

IE 6 Kasuen bidez ikerketa zehatzen arteko erlazioak aztertzea metodologia esperimental desberdinei arreta ipiniz



BALIOAK

Ikaskuntza emaitzak

IE 7 Garapen psikologikoko prozesuak baldintzapean jartzen dituzten fenomenoetako sentikor bihurtzea: teratogenoak, akuilatzea, aldi sensibleak, familiaren testuinguru soziala

IE 8 Gertaerak eta ikasitako kontzeptuetan oinarrituz garapenari buruzko praktikak balioestea: akuilatze kognitiboko esku-hartze programak, heziketa-praktiken egokitzapena emaitza zientifikoetan oinarrituz

JARDUNBIDEAK

Ikaskuntza emaitzak

IE 9 Esperimentu bat egitea eta taldean lan koherente eta justifikatutakoa lantzea

IE 10 Ikasitako kontzeptuak buruz laburbildu, osatu eta informazioa era argian adierzteko gai izatea

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdiko ebaluazio-irizpideak ohiko deialdiko berberak izango dira, non eta ez den beste ebaluazio-modu bat adosten bada, ikastaroaren arabera.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gai bakoitzean MOODLEn azalduko da (eta gehienetan era digitalean argitaratu ere bai) erabili beharreko materiala.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- ARRANZ, E. (1998). Modelos del desarrollo psicológico humano. Leioa: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.
- BERGER, S. K. eta THOMPSON, R. A. (1998). Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia. Madrid: Médica Panamericana.
- BERMEJO, V. (1994). Desarrollo Cognitivo. Madrid: Síntesis Psicología.
- FLAVELL, J. H. (1963). La Psicología Evolutiva de J. Piaget. Barcelona: Paidós.
- KAIL, R. V. eta CAVANAUGH, J.C. (2006). Desarrollo Humano. Madrid: Thomson.
- LEFRANCOIS, G. L. (2000). El ciclo de la vida. Madrid: Thompson.
- LIZASO, I. eta APODAKA, M. (2008). Giza garapen psikologikoaren ereduak I. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- LIZASO, I. eta APODAKA, M. (2008). Giza garapen psikologikoaren ereduak II. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- PALACIOS, J. MARCHESI, A. eta COLL, C. (1999). Desarrollo psicológico y Educación. Vol. 1. Desarrollo cognitivo y social del niño. Vol. 2. Desarrollo psicológico y educación. Vol.3: Psicología Evolutiva. Madrid: Alianza Artitaletxea.
- PALACIOS, J., MARCHESI, A., COLL, C. (1999). Garapen psikologikoa eta hezkuntza. Leioa: UPV/EHU Argitalpen Zerbitzua.
- PAPALIA, D. E. eta OLDS, S. (2009). Psicología del desarrollo de la infancia a la adolescencia. Madrid: McGraw-Hill.
- RICE, R. (1997). Desarrollo Humano. Estudio del Ciclo Vital. México: Prentice-Hall.
- SANTROCK, J.W. (2006). Psicología del Desarrollo. El ciclo vital. Madrid: Mc Graw Hill.
- SHAFFER, D. (2000). Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia. México: International Thomson.
- STASSEN BERGER, K eta THOMPSON, R. A. (1995). Psicología del desarrollo: Infancia y adolescencia. Madrid: Panamericana.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- FLAVELL, J. H. (1963). La Psicología Evolutiva de J. Piaget. Barcelona: Paidós.

Aldizkariak

- Infancia y Aprendizaje
Child Development
Revista de la Psicología General Aplicada
Developmental Psychology
Journal of Adult Development
Aging and Society.
Geriatría.
<http://psicothema.com>
http://ub.es/psicolog/infancia/inf_apr.htm
<http://um.es/analesps>
<http://uv.es/psicologica>
Human Development
Psychology and Aging
Revista Española de Geriatría y Gerontología.
The Gerontologist.
The Journals of Gerontology



Interneteko helbide interesgarriak

<http://piaget.org>
<http://www.imsersomayores.csic.es/basesdedatos/index.jsp>
<http://www.vigotsky.idoneos.com/>
www.apa.org
www.cop.es
www.etxadi.org
www.ueu.org
www.uztaro.com

OHARRAK

IKASKUNTZA ETA EBALUAKETA BIRTUALAREN PLANA

Ikasgai honek irakaskuntza birtualerako plan bat du, ezohiko kasuetan modu presentzian eskolak ematea ezinezkoa denean. Kasu hauetan, eduki teorikoekin eta praktikoekin erlazionaturiko materialak Egela plataformara igotzen dira astero, 5. ataleko plangintza eta kronogramari jarraituz.

Eskola teorikoak irakasle bakoitzarekin burutuko dira, Webuntis-en aurrez ezarritako eskola orduan. Eskola hauek Egela plataformak eskaintzen dituen baliabide desberdinen bitartez egingo dira, besteak beste Blackboard Collaborate. Ordu hauek irakurgai desberdinetako zalantzak argitzeko eta eskola teorikoak emateko erabiliko dira.

Gelako Praktikak (GP) astero burutuko dira, eta bideo bat ikustean eta honen inguruko fitxa bat betetzean oinarrituko dira. Bi baliabide hauek, hau da, bideoa eta fitxa, Egelan zintzilik izango dituzte ikasleek. Fitxa hau irakasleari astero entregatuko zaio edo irakaslearekin "in situ" zuzenduko da. GP orduak fitxetan apuntatuko edukiak komentatzeko eta zalantzak argitzeko erabiliko dira.

Tailerrak (TA) artikuluen irakurketan eta hauen inguruko fitxa bat betetzean oinarritzen dira. Bi baliabide hauek ere Egelan zintzilik izango dituzte ikasleek. Fitxa hauetako bakoitza irakasleari astero entregatuko zaio eta TA orduak fitxetan apuntatutako edukiak komentatzeko eta zalantzak argitzeko erabiliko dira.

Talde lana Egelan zintzilik dauden bi dokumentuetan zehaztutako gai guztietako bat hautatzean eta gai horren inguruko sakontze-lan bat egitean oinarritzen da. Talde lana egiteko dokumentu hauetan zehazten diren irizpideei jarraitu beharko diete ikasleek.

Tutoretzak irakasle bakoitzarekin arratsalde burutuko dira, e-mail, edo Blackboard collaborate baliabidearen bitartez, teilakatzeak eta ordutegi betealdiak saihestearren. Ahal den neurrian telefonoz komunikatzeko bideak ahalbidetuko dira. Tutoretza hauek ikasle guztien aldetik ikasgaiaren jarraipena dute helburu, eta zailtasun handiagoa dituzten ikasle horiei banakako arreta emateko aukera dute helburu. Tutoretza ordu hauek irakasle bakoitzak Webuntis-en sartuko ditu, ikasleek eta irakasleek ikus ditzaten.

Irakaskuntza birtuala egoeran egiteko ebaluaketa (2020ko plangintza)

Irakaskuntza birtuala egoeran, talde lanaren ebaluaketak kalifikazioaren %40a suposatuko du, eta eduki praktiko zein teorikoak %60. Hauek, test azterketaren bidez ebaluatuko dira, zigor gabeko lau erantzun aukerekin. Gainditzeko nota minimoa 6 izan beharko da. Test hau online burutuko da Egela plataformaren bidez deialdi ofizialaren data eta ordua errespetatuz. Ebaluaketa prozedurari buruzko zehaztasunak Egelan zintzilikatuko dira.

Baliabide teknologiko gabeko ikasleek alde aurretik jarri beharko dira harremanetan irakaslearekin, eta kasu horretan beste irtenbide bat adostuko da azterketa egiteko.

Bi aukeretan, ohiko deialdian gainditzen ez duenari, beti bezala, lanaren nota gordeko zaio hurrengo deialdietarako. Aurreko ikasturteetan lana gainditu duten pertsonen kasuan, %40 ponderatuko zaio. Bestetik, alde aurretik irakasgaia modu ez jarraian egitea adierazi nahi duten ikasleek azterketaren notak %100 balioko du.